

KMKOB



Ibilbidea eta, atzean, Aiako Harria. [DAVID APREA]



Betagarri taldeak jende asko erakarri zuen. [D. A.]

Jaiaren antolatzaileek omenaldi egin zieten  
Haurtzaro ikastolak 1967az geroztik  
izan dituen hamar lehendakariei

# 1a 40 urte eta 10 lehendakari

F. I.

OIARTZUN. DV. Beste zenbait Kilo-  
metrotan egin izan den bezala,  
atzo Haurtzarok bere lehendaka-  
ri guztiak omendu zituen. «Lagun  
hauen bidez Oiartzungo herria,  
oiartzuarrak omendu nahi ditu-  
gu», esan zuen aurkezleak, An-  
ton Kazabon irakasleak.

1967an sortu zen Haurtzaro,  
beraz datorren urtean berrogei  
beteko ditu. Orduan Elizaren  
babesaz jaio zen eta aurreneko ize-  
na hauxe izan zuen: Escuela  
Parroquial Haurtzaro.

Julian Bergaretxe izan zen  
lehenbiziko lehendakaria. 1976ra  
arte izan zuen ardura hori eta  
badira urte batzuk hil zela. Atzo  
alargunak, Mañoli Urdanpilletak,  
jaso zuen oroigarria.

Atzoko ekitaldian gogorarazi

zuten Juan Oñatibia izan zela  
hasiera hartako bultzatzaile nagus-  
ia, eta Udaletxetik ikastola ixte-  
ko agindua jaso zela behin.

Ondorengo lehendakariak  
hauek izan ziren: Roman Irigoien  
(1976-1978), Juanito Iñarra (1878-  
1982), Martxel Ansa (1982-1985),  
Jesus Mari San Román (1985-1987),  
Juan Ignacio Ansa (1987-1993); Iña-  
ki Portugal (1993-1995), Anjel Ber-  
garetxe (1995-1997), Jokin Garzia  
(1997-2001) eta Arantxa Mantero-  
la (2001).

Roman Irigoienek, trantsizio  
garaiko lehen lendakariak, hau  
esan zien ikastolako aretoan bil-  
dutaokoei: «Prekarietatean bizi  
ginen, baina herriaren babesa,  
erabat sentitzen genuen. Hez-  
kuntza Delegaziotik noiznahi esa-  
ten ziguten hurrengo urtean ezin-  
go genuela segitu, ez dakit zer bai-

men falta zitzaigula eta».

1978-82 tartean lehendakari jar-  
dun zen Juanito Iñarrak, berriz,  
hau adierazi zuen: «Eliza garai  
hartan ondo portatu zen. Udale-  
txearekin giro hobea lortu  
genuen. Eta izen bat azpimarra-  
tzekotan Juan Mari Barrenetxe-  
arena gogoratuko nuke. Hark zen-  
bat lan egin zuen!».

San Románek, berriz, esan zuen  
ukitu beharreko gaiak eta arazo-  
ak «gogorak eta desatseginak»  
izan zirela sarritan, eta bere agin-  
taldian sortu zela Haurtzaro Kirol  
Elkartea, eskolaz kanpoko kirola-  
ri egitura hobea eman nahian.

Anjel Bergaretxek (1995-1997)  
honela jardun zuen: «Publifika-  
zio garaia etorri zenean ezetz esan  
genuen. Jartzen zituzten baldin-  
tzak ez ziren onartzeko modu-  
koak». ■



Gazteak izan ziren gehiengoa. [D. A.]



Haurtzaro ikastolako lehendakariak omendu zituzten. [D. A.]